

BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

4058

35/2011 EBAZPENA, uztailaren 28koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Eusko Jaurlaritzak egindako zenbait hitzarmen, beherago zehaztutakoak, argitaratzea xedatzen duena.

Eusko Jaurlaritzak zenbait hitzarmen sinatu dituenaz gero, zabalkunde egokia izan dezaten, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Ondoko hitzarmenen testua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea:

– Hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Eibarko Udalaren artekoa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 38.4.b) artikuluan ezarritakoa betetzeko. (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari zuzendutako idazkiak udal erregistroetan aurkezteko lankidetz); I. eranskinean jasotzen da.

– Hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Gaubeako Udalaren artekoa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 38.4.b) artikuluan ezarritakoa betetzeko. (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari zuzendutako idazkiak udal erregistroetan aurkezteko lankidetz); II. eranskinean jasotzen da

– Hitzarmena, Hernaniko Udalarekikoa, Hernaniko BHI handitzeko eta bigarren hezkuntzako berrantolamendu berri bat ezartzeko; III. eranskinean jasotzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 28a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
M.^a JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

2011ko abuztuaren 25a, osteguna

I. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAK UZTAILAREN 28AN EMANDAKO 35/2011
EBAZPENARENA

HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ETA EIBARKO UDALAREN
ARTEKOA, HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOARI ETA ADMINISTRAZIO
PROZEDURA ERKIDEARI BURUZKO AZAROAREN 20KO 30/1992 LEGEAREN 38.4.b)
ARTIKULUAN EZARRITAKOA BETETZEKO (EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIOARI ZUZENDUTAKO IDAZKIAK UDAL ERREGISTROETAN AURKEZTEKO
LANKIDETZA).

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 28a.

BILDU DIRA:

Batetik, Idoia Mendia Cueva andrea, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburua dena, EA Eren ordezkari gisa, eta bestetik,

Miguel de los Toyos Nazabal, Eibarko Udaleko alkate-lehendakari jauna, esandako udalaren ordezkari gisa.

Bi ordezkariok ondorengo manu hauek emandako eskumenak erabiliz dihardute: batetik, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretua nahiz Jaurlaritzaren Kontseiluak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 38.4.b artikuluan aurreikusitako hitzarmenak gauzatzeko, 1996ko urriaren 29an hartutako Erabakia; eta bestetik, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea nahiz Toki Araubide arloko indarrean dauden xedapenen testu bategina onartu zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua.

Bi aldeek, elkar onartzen dute eta elkarri aitortzen diote hitzarmen hau gauzatzeko legezko gaitasuna. Horretarako, honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

30/1992 Legearen 38.4.b) artikuluen arabera, Administrazio Publikoari zuzendutako eskaera, idazki eta jakinarazpenak, Estatuko Administrazio Orokorreko nahiz autonomia-erkidegoetako edozein organotako erregistroan edota Toki-Administrazioerako erakunderen batean aurkez daitezke, beti ere, azken kasu honetan, dagokion hitzarmena sinatu bada.

Aipatutako manu hori betetzea eta herritarren eta administrazio publikoen arteko harremanak erraztea da gaur sinatzen den hitzarmen honen helburua; izan ere, administrazio sinatzaileek lehendik zuten asmoa, hots, herritarrek, EA Eko Administrazioaren edozein organo edo erakunderi zuzendu nahi dizkieten agiriak Eibarko Udalaren erregistroetan, eraginkortasun osoz, aurkeztu ahal izatea, gauzatu egiten da honako hitzarmen hau dela medio.

Gauzak horrela, arestian aipatutako administrazioek hitzarmen hau sinatzen dute, hona hitzarmenaren

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Hitzarmen honen helburua da, EAEko Administrazioari eta nortasun juridikoa duten Zuzenbide Publikoko Erakundeei herritarrek zuzentzen dizkieten eskaera, idazki eta jakinarazpenak Eibarko Udalaren erregistroetan aurkeztu ahal izatea.

Bigarrena.– EAEko Administrazioari eta nortasun juridikoa duten Zuzenbide Publikoko Erakundeei herritarrek zuzentzen dizkieten eskaera, idazki eta jakinarazpenak Eibarko Udalaren erregistroetan aurkeztu direneko data hartuko da kontuan interesatuek epeak betetzeari dagokionean; ildo horretatik, 30/1992 Legearen 48. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

Hirugarrena.– Eibarko Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

a) EAEko Administrazioari Organoei edo administrazio horri atxikiriko Zuzenbide Publikoko Erakundeei herritarrek zuzentzen dizkieten eskaera, idazki eta jakinarazpenak bere erregistroetan onartzea.

b) EAEko Administrazioari zuzendutako eskaera, idazki eta jakinarazpenei bere erregistroetan sarrera ematea, eta honako hauek idatzita gordetzea: sarrera-zenbakia, izenburua, idazkia jaso zeneko eguna eta ordua, interesatuaren datuak, eta, hala dagokionean, idazkia bidali duen organoaren izena, edo bidaltzen zaion pertsona edo organoaren izena; behar denetan, idazki edo jakinarazpenaren laburpena ere jasoko da; hori guztia 30/1992 Legearen 38.3 artikulua eta bigarren xedapen gehigarriaren arabera.

c) Agiriok erregistroan jaso eta, beranduen, handik bi egunetara, dagozkien organo edo erakundeei zuzenean bidaltzea, beti ere, irteera-data idatzita egongo delarik. Agiriok ahalik eta azkarren jaso daitezten, ahal delarik behintzat, egoki iritzitako teknika eta bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabiliko dira; beti ere, 30/1992 Legearen 45. artikuluan eta horrekin bat datozen gainerako manu eta xedapenetan aurreikusten diren berme eta betebeharrak kontuan izanik.

Laugarrena.– EAEko Administrazioak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Eibarko Udalari, administrazioa osatzen duten organo eta erakundeei buruzko informazioa ematea, hala nola informazio hori, etengabe, eguneratzea.

b) Eibarko Udalari baliabide egokiak ematea, honek, EAEko Administrazioari eta honi atxikitako zuzenbide publikoko erakundeei buruzko informazioa eman diezaien herritarrei.

c) Erregistroak informatizatzeko laguntza teknikoa eta behar den lankidetzak eskaintzea.

Bosgarrena.– Baldin eta hitzarmen hau sinatzen duten administrazioek euren erregistroak informatizatzeko neurriak hartzen badute, elkarri jakinarazteko konpromisoa hartzen dute, beti ere, neurriok interkomunikazio sistemen bateragarritasuna eragiten badute; horrelakoetan, administrazio sinatzaileek, aipatutako bateragarritasuna eta euren erregistroen arteko koordinazioa bermatzeko hitzarmena sinatzen dute.

Seigarrena.– Hitzarmen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera, lau urtez egongo da indarrean. Baldin eta, administrazio sinatzaileetako batek, hitzarmena amaitu baino, gutxienez, bi hilabete lehenago, espresuki, kontrakorik ez badio, hitzarmen hau, besterik gabe, beste lau urtetarako luzatuko da.

Hitzarmena, ondorengo arrazoi hauek direla kausa ere iraungi egingo da: administrazio sinatzaileek adostasunez hala erabakitzen badute; edota administrazioetako batek, beste

administrazioak hitzarmenean ezarritako betebeharrak nabarmenki urratu dituelako, bere aldetik hala erabakitzen badu.

Hitzarmen honen formalizazioa nahiz iraungipena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Eibarko Udaleko iragarki-taulan argitaratuko dira.

Zazpigarrena.– Hitzarmen honen interpretazioa eta aplikazioa direla-eta sor daitezkeen zalantzen eta eztabaiden inguruan erabakiak hartzea, Justizia eta Herri Administrazioako sailburuari dagokio; erabakiok betearazleak izango dira eta haien kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da.

Ados daudela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, interesatuek jatorrizko bi aleak sinatu dituzte, idazpuruan esandako lekuan eta egunean.

Justizia eta Herri Administrazioako sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Eibarko Udaleko alkate-lehendakaria,
MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL.

II. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAK UZTAILAREN 27AN EMANDAKO 34/2011
EBAZPENARENA.

HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ETA GAUBEAKO UDALAREN
ARTEKOA, HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOARI ETA ADMINISTRAZIO
PROZEDURA ERKIDEARI BURUZKO 30/1992 LEGEAREN 38.4.b) ARTIKULUAN
EZARRITAKOA BETETZEKO. (EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOARI
ZUZENDUTAKO IDAZKIAK UDAL ERREGISTROETAN AURKEZTEKO LANKIDETZA).

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 23a.

BILDU DIRA:

Batetik, Idoia Mendia Cueva andrea, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburua dena, EA Eren ordezkarri gisa, eta bestetik,

Juan Carlos Ramírez-Escudero Isusi, Gaubeako Udaleko alkate-lehendakari jauna, esandako udalaren ordezkarri gisa.

Bi ordezkarriok, ondorengo manu hauek emandako eskumenak erabiliz dihardute: batetik, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abenduaren 28ko 472/2009 Dekretua nahiz Jaurlaritzaren Batzordeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 38.4.b) artikuluan aurreikusitako hitzarmenak gauzatzeko, 1996ko urriaren 29an hartutako Erabakia; eta bestetik, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea nahiz, Toki Araubide arloko indarrean dauden xedapenen testu bategina onartu zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua.

Bi aldeek, elkar onartzen dute eta elkarri aitortzen diote honako hitzarmen hau gauzatzeko legezko gaitasuna. Horretarako zera

ADIERAZTEN DUTE:

30/1992 Legearen 38.4.b) artikuluen arabera, Administrazio Publikoari zuzendutako eskaera, idazki eta jakinarazpenak, Estatuko Administrazio Orokorreko nahiz Autonomi Elkarrekin edozein organotako erregistroan edota Toki-Administrazioerako erakunderen batean aurkez daitezke, beti ere, azken kasu honetan, dagokion hitzarmena sinatu bada.

Aipatutako manu hori betetzea eta herritarren eta administrazio publikoen arteko harremanak erraztea da gaur sinatzen den hitzarmen honen helburua; izan ere, administrazio sinatzaileek lehendik zuten asmoa, hots, herritarrek, EA Eko Administrazioaren edozein organo edo erakunderi zuzendu nahi dizkioten agiriak Gaubeako Udalaren erregistroetan, eraginkortasun osoz, aurkeztu ahal izatea, gauzatu egiten da honako hitzarmen hau dela medio.

Gauzak horrela, arestian aipatutako administrazioek hitzarmen hau sinatzen dute, hona hitzarmenaren

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Hitzarmen honen helburua da, EAEko Administrazioari eta nortasun juridikoa duten Zuzenbide Publikoko Erakundeei herritarrek zuzentzen dizkieten eskaera, idazki eta jakinarazpenak Gaubeako Udalaren erregistroetan aurkeztu ahal izatea.

Bigarrena.– EAEko Administrazioari eta nortasun juridikoa duten Zuzenbide Publikoko Erakundeei herritarrek zuzentzen dizkieten eskaera, idazki eta jakinarazpenak Gaubeako Udalaren erregistroetan aurkezten direneko data hartuko da kontuan interesatuek epeak betetzeari dagokionean; ildo horretatik, 30/1992 Legearen 48. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

Hirugarrena.– Gaubeako Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

a) EAEko Administrazioari Organoei edo administrazio horri atxikiriko Zuzenbide Publikoko Erakundeei herritarrek zuzentzen dizkieten eskaera, idazki eta jakinarazpenak bere erregistroetan onartzea.

b) EAEko Administrazioari zuzendutako eskaera, idazki eta jakinarazpenei bere erregistroetan sarrera ematea, eta honako hauek idatzita gordetzea: sarrera-zenbakia, izenburua, idazkia jaso zeneko eguna eta ordua, interesatuaren datuak, eta, hala dagokionean, idazkia bidali duen organoaren izena, edo bidaltzen zaion pertsona edo organoaren izena; behar denetan, idazki edo jakinarazpenaren laburpena ere jasoko da; hori guztia 30/1992 Legearen 38.3 artikulua eta bigarren xedapen gehigarriaren arabera.

c) Agiriok erregistroan jaso eta, beranduen, handik bi egunetara, dagozkien organo edo erakundeei zuzenean bidaltzea, beti ere, irteera-data idatzita egongo delarik. Agiriok ahalik eta azkarren jaso daitezten, ahal delarik behintzat, egoki irizitako teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiliko dira; beti ere, 30/1992 Legearen 45. artikuluan eta horrekin bat datozen gainerako manu eta xedapenetan aurreikusten diren berme eta betebeharrak kontuan izanik.

Laugarrena.– EAEko Administrazioak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Gaubeako Udalari, administrazioa osatzen duten organo eta erakundeei buruzko informazioa ematea, hala nola informazio hori, etengabe, eguneratzea.

b) Gaubeako Udalari baliabide egokiak ematea, honek, EAEko Administrazioari eta honi atxikitako zuzenbide publikoko erakundeei buruzko informazioa eman diezaien herritarrei.

c) Erregistroak informatizatzeko laguntza teknikoa eta behar den lankidetzak eskaintzea.

Bosgarrena.– Baldin eta, hitzarmen hau sinatzen duten administrazioek euren erregistroak informatizatzeko neurririk hartzen badute, elkarri jakinarazteko konpromisoa hartzen dute, beti ere, neurriok interkomunikazio sistemen bateragarritasuna eragiten badute; horrelakoetan, administrazio sinatzaileok, aipatutako bateragarritasuna eta euren erregistroen arteko koordinazioa bermatzeko hitzarmena sinatzen dute.

Seigarrena.– Hitzarmen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera, lau urtez egongo da indarrean. Baldin eta, administrazio sinatzaileetako batek, hitzarmena amaitu baino, gutxienez, bi hilabete lehenago, espresuki, kontrakorik ez badio, hitzarmen hau, besterik gabe, beste lau urtetarako luzatuko da.

Hitzarmena, ondorengo arrazoi hauek direla kausa ere iraungi egingo da: administrazio sinatzaileek adostasunez hala erabakitzen badute; edota administrazioetako batek, beste

administrazioak hitzarmenean ezarritako betebeharrak nabarmenki urratu dituelako, bere aldetik hala erabakitzen badu.

Hitzarmen honen formalizazioa nahiz iraungipena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta Gaubeako Udaleko iragarki-taulan argitaratuko dira.

Zazpigarrena.– Hitzarmen honen interpretazioa eta aplikazioa direla eta sor daitezkeen zalantza eta eztabaiden inguruko erabakiak hartzea, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuari dagokio; erabakiok betearazleak izango dira eta haien kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da.

Ados daudela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, interesatuek jatorrizko bi aleak sinatu dituzte, idazpuruan esandako lekuan eta egunean.

Justizia eta Herri Administrazioiko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Gaubeako Udaleko alkate-lehendakaria,
JUAN CARLOS RAMÍREZ-ESCUDERO ISUSI.

III. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAK UZTAILAREN 28AN EMANDAKO 35/2011
EBAZPENARENA

HERNANIKO UDALAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN
ARTEAN HERNANIKO BHI ZABALTZEKO ETA HERNANIKO UDALERRIAN BIGARREN
HEZKUNTZA BERRANTOLATZEKO SINATUKO DEN HITZARMENA

Hernani, 2011ko ekainaren 2a.

BILDU DIRA:

Alde batetik, Maria Angeles Beitialarrangoitia Lizarralde, Hernaniko Udaleko alkatea den aldetik, erakunde horren ordezkari gisa, udalbatzak 2011ko otsailaren 24an egindako osoko bilkuran hartutako erabaki bidez honetarako behar bezala ahalmendurik.

Bestetik, Carlos Aguirre Arana, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasuneko sailburua den aldetik, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko maiatzaren 24an hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako baimendurik.

Eta, bestetik, María Isabel Celaá Diéguez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua den aldetik.

ETA HAU AZALDU DUTE:

Lehenengoa.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Hernaniko Udalerrian prozesu bat jarri nahi du martxan eta, prozesu horren baitan, hainbat alderdi aztertu eta bildu ondoren, hala nola herriko gizarte-hezkuntzaren errealitate konplexu eta anitza, herriko instalazioak, demografia tasen egokitzapena eta haien proiektzioa, mailen arabeko ratioak eta udalerrri honetako familien eskolaratzeko joerak, proposamen hau egingo du: Hernanin Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bakarra jartzea. Hori gauzatu ahal izateko, beste eraikin bat eraiki beharra dago, lehendik dauden instalazioak osatze aldera, hau da, Agustin Iturriaga (Hernani BHI) eta Santa Barbara (Langile BHI).

Proiektu hori gauzatu ahal izateko Hernaniko Udalarena den 6.044 m²-ko lur zati bat eskuratu beharra dago. Udala egin beharreko atze-aurreak egiten ari da lursail horren doako lagapena egin dadin.

Bigarrena.– Mintzagai dugun bigarren hezkuntzako ikastetxe bakarra 2010-2011 ikasturtean jartzeko asmoa dago, hezkuntza plangintza honen arabera:

– 2010-2011 ikasturtea: DBHko 1. maila Hernani BHIIn emango da, Agustin Iturriaga eraikinean. DBHko 2., 3. eta 4. mailak oraingo Langile BHI, Elizatxo BHI eta Urumea BHIIn ematen jarraituko dira, hurrenez hurren.

– 2011-2012 ikasturtea: DBHko 1. eta 2. maila Hernani BHIIn emango dira, Agustin Iturriaga eraikinean. DBHko 3. eta 4. mailak lehen esandako eraikinetan.

– Hurrengo ikasturteetan DBHko ikasturte guztiak Hernani BHIIn emango dira, Agustin Iturriagan, Santa Barbaran eta eraikiko den beste berri batean.

Hirugarrena.– Gaur egun Urumea BHI (Elkano 7) eta Elizatxo BHI (Florida 28) kokatuak dauden finkak eta eraikinak udalarenak dira, eta bere garaian horien erabilera Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari utzi zizkion, udalerriko hezkuntza beharrei aurre egite aldera.

Urumea BHI higiezinak (Elkano kalea) gabezia asko ditu DBH ematen duen ikastetxe baten hezkuntza beharrei aurre egin ahal izateko.

Aipatutako hezkuntza azpiegitura berriak egin ondoren eta bigarren hezkuntza osoa benetan eta behin betiko bigarren hezkuntzako ikastetxe bakar batean kokatzen denean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez du gaur egun Urumea BHI kokatua dagoen eraikina erabiltzen jarraitu beharrik izango.

Laugarrena.– Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 55 eta 57. artikuluek diotenaren arabera, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 4. artikulua dioenaren arabera eta azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretu bidez onartutako Euskadiko Ondarearen Legearen Testu Bateginak xedatutakoaren arabera, aldeek HITZARMEN hau izenpetzen dute. Hona hemen

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Udalak hitz ematen du Eusko Jaurlaritzari 6.044 m²-ko lursail bat doan lagako diola, Hernani BHI handitzeko beharrezkoa baita. Lagatuko den lursaila zein den Hitzarmen honekin batera doan planoan agertzen da (eranskina).

Udala lagapena gauzatzeko egin beharreko atze-aurre guztiak egiten ari da, eta espedientea ahalik eta lasterren bukatuko duela hitz ematen du.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren bitartez, alde batetik, eraikin berri bat eraikiko du, Agustin Iturriaga BHI eta Santa Barbara eraikinen instalazioak osatzeko eta Hernaniko udalerriko bigarren hezkuntzako ikastetxe bakarra haietan kokatzeko. Eta, bestetik, Urumea ikastetxea handituko du (Gaymur-Larramendi 18), ikastetxe hori bere ikasle guztiei ongi erantzuteko moduan egon dadin, eta, obra horiek egin ondoren, gaur egun Urumea BHI dagoen eraikina (Elkano 7) hustuarazi eta inolako erabilerarik gabe utziko du.

Horiek egin eta martxan jarri ondoren, Autonomia Erkidegoko administrazioak, indarrean dagoen araudian jasota datorren prozedura erabiliz, BHI Urumea eraikina hezkuntza erabileratik desfektatzeko tramitazioari ekin eta Hernaniko Udalari itzuliko dio, hitzarmen honetan espresuki adierazita gelditzen delarik eraikin hori ez dela beharrezkoa hezkuntza zerbitzu publikorako, eta Hernaniko Udalari itzultzeko konpromisoa hartzen duela.

Hirugarrena.– Hitzarmen honetan aipatutako zentroen berrantolaketa egin ondoren eta Hernaniko Udalerraren hezkuntza beharrak aztertu ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak udalerrri osoko hezkuntza beharrei buruzko informazioa emango dio Udalari, eta bi erakundeen artean aztertuko da udalarenak diren eta gaur egun hezkuntzarako erabiltzen diren beste zentro eta lokal batzuk udalari itzuli behar zaizkion ala ez.


Bestalde, gaur egun hezkuntza zentro gisa erabiltzen diren eta bere horretan jarraituko duten eraikinetan obrarik egin behar ote den ere aztertuko da eta, egin behar izanez gero, horiek egiteko epeak-eta jarriko dira.

Eta hitzartutakoarekin ados daudela adierazteko, hitzarmenaren izenpetzaileek agiri honen hiruna ale sinatu dituzte, goian adierazitako lekuan eta egunean.

2011ko abuztuaren 25a, osteguna

Hernaniko Partzelarioa\Parcelario de Hernani

- Abc Barreiatuko eraik izenak\Nombres edif disseminado
- Abc Testu Orokorrak\Textos Generales
- Abc Eraikuntzen testuak\Textos edificios
- Abc Atari zenbakiak\Números de portal
- Lur azpiko eraikuntzak\Construcciones en subsuelo
- Eraikuntzak zain\Edificios pendientes
- Eraikuntzak\Edificios
- Osagarriak zain\Complementos pendientes
- Eraikuntza osagarriak\Complementos de edificios
- Egingo diren eraikuntzak\Edificios futuros



SCALE 1 : 1.976

